

ASTE NAGUSIA 2012 SEMANA GRANDE

ABUZTUAK 11 – 18 AGOSTO

TXOSNEN INSTALAZIOA SAGUESEN

2012ko Aste Nagusian jai-giroa sortzen laguntzeko helburuarekin, Donostia Kulturak, Saguesen 5 txosna jartzeko zozketa egingo du.

INSTALACION DE TXOSNAS EN SAGÜES

Con el fin de colaborar en la ambientación festiva de la Aste Nagusia 2012 Semana Grande, Donostia Kultura procederá al sorteo de 5 txosnas en Sagües.

OINARRIAK

Helburua

- 1.- Abuztuaren 11tik 18ra (biak barne) Donostia hiriko Saguesko zabalgunean 5 txosna jartzea, horietatik 4 irabazi-asmorik ez duten Elkarten artean esleituko da eta, gutxienez ere, bat lan-arlokoa izango da. Guztiak zozketa bidez esleituko dira. Zozketa biak fede-emaile publikoaren aurrean egingo da, oinarri hauetako 2. puntuko baldintzak betetzen dituzten elkarten artean.
2. puntuko baldintzak beteko lituzketen eskatzaileen kopurua, ezar daitezkeen txosna-kopurua baino handiagoa ez bada, txosna horiek izena eman duten taldeei zuzenean esleituko zaizkie, baldin eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

B A S E S

Objeto

- 1.- Instalación de 5 txosnas en la explanada de Sagües de la capital donostiarra del 11 al 18 de agosto (ambos inclusive) del año en curso, de las cuales 4 serán adjudicadas entre asociaciones sin ánimo de lucro en general y, al menos, 1 será del ámbito de derechos laborales, mediante sorteo. Ambos sorteos se realizarán ante fedatario/a público/a entre los colectivos que cumplan los requisitos del punto 2º de estas bases. Si el número de solicitantes que cumpliesen los requisitos del punto 2º no superase el del número de txosnas disponibles se procederá a la concesión directa de las mismas a los colectivos inscritos siempre que cumplan los requisitos exigidos en las presentes bases.

Eskatzaileak

- 2.- Eskaera, ondorengo baldintzak betetzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte kulturelek, kirolekoek, aisialdikoek zein sozialek egin ahal izango dute:
 - a) Indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta egotea eta Donostiako udaleko Elkarten Erregistroan inskribatuta egotea.

Solicitantes

- 2.- Podrán solicitar la concesión aquellas asociaciones sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos:
 - a) Estar constituidos de acuerdo a la legislación vigente e inscritos en el Registro de Asociaciones del Ayto. de Donostia-San Sebastián

- b) Helbide soziala Donostian izatea.
- c) Eskabidea, Elkarteko Presidenteak sinatuta aurkeztea.

Txosna hauek eskuratu nahi dituzten elkarteek euren jarduera Donostian gauzatu beharko dute, etengabe eta urtean zehar, eta beti boluntarioen bitartez. Halaber, talde hauen jarduerak ez dute irabazi-asmorik izango, ez dituzte merkatu-mozkinak bilatuko eta urtean zehar egiten dituzten jardueretarako laguntza gisa erabiliko dute. Helburu horrekin, 2011n elkarteak egindako jardueren egutegia ere aurkeztu beharko dute. Horretaz gain, egindako jarduerak justifikatzeko liburuxkak eta kartelak aurkeztu beharko dituzte, eta baita jarduera burutu dela egiaztatzen duen dokumentazioa edo euskarria.

Elkarte bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.

Elkarte batek bigarren eskabide bat aurkeztu duela ulertuko da, eta beraz ez da onartuko, beste elkarte baten izena erabiltzen duenean, helbide sozial bera izanda, eta kargu sozial batzuetan pertsona berberak azaltzen direnean.

Orobat, Elkarte batek bigarren eskabide bat aurkeztu duela ulertuko da, eta beraz ez da onartuko, helbide sozial bera izan gabe, kargu sozial batzuetan pertsona berberak azaldu eta helburu sozial bera dutenean.

Halaber, eskaera sinatzen duen pertsonak NANen kopia aurkeztu beharko du derrigorrez. Era berean, eta hala behar izanez gero, berekin harremanetan jartzeko telefono-zenbaki bat eman beharko du. Telefono-zenbaki hori ezingo da ordezkatzan ari den Erakundearen telefono-zenbaki bera izan.

- b) Tener su domicilio social en Donostia-San Sebastián
- c) Presentar solicitud suscrita por la Presidencia de la Asociación

Las asociaciones que opten a la concesión de estas txosnas deberán desarrollar su actividad en Donostia - San Sebastián, de manera continuada y a lo largo del año, siempre realizada mediante voluntariado. Asimismo, sus actividades carecerán de ánimo de lucro, sin búsqueda de beneficio mercantil y como apoyo a las actividades que realizan durante el año. A tal fin, deberá aportarse calendario de actividades realizadas por la asociación en 2011, folletos y carteles justificativos de las actuaciones realizadas junto con otra documentación o soporte que acredite la realización de la actividad realizada.

Cada asociación podrá presentar una única solicitud.

Se entenderá que una asociación ha presentado una segunda solicitud, y por lo tanto no será admitida, cuando utilice para ello el nombre de otra asociación que teniendo el mismo domicilio social tenga coincidencia además respecto de alguna persona en alguno de sus cargos sociales.

Asimismo se entenderá que una asociación ha presentado una segunda solicitud, y por lo tanto no será admitida, cuando aun disponiendo de domicilio social diferente tenga coincidencia respecto de alguna persona en sus cargos sociales y comparta el mismo objeto social.

Será preceptiva la presentación de copia del D.N.I. de la persona firmante de la solicitud, así como la indicación de un número de teléfono en el que pueda ser localizado en caso de necesidad. Dicho número de teléfono habrá de ser diferente al de la Asociación a la que representa.

Eskabideak eta zozketa egiteko epeak

- 4.- Eskerak, eskatutako dokumentazioarekin batera, Donostia Kulturaren Festak Unitateko bulegoetan (Konstituzio plaza, 1) aurkeztuko dira. Horretarako azken eguna **ekainaren 8ko 13:30ean** izango da.

Ekainaren 15ean, Donostia Kulturako iragarki-taulan eta Web orrian, zozketan parte hartzeko onartu dituztenen zerrenda aurkeztuko da. Litezkeen erreklamazioak, zerrenda jendaurrean jartzen den egun beretik ekainaren 22ko 13:30ak arte aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamazioen bat aurkeztuz gero, horren inguruko ebazpena Donostia Kulturako iragarki-taulan eta Web orrian argitaratuko da **ekainaren 27an**.

Uztailaren 4ean zozketa egingo da Fede-emaile publikoaren aurrean.

- 5.- Eskaera, eredu hau jarraituta aurkeztu behar da;
- jn./and.,
..... zk.ko NAN eta
.....telefono-zenbakia
dituena, gizarte-egoitza Donostiako
.....kalean duen
.....elkartean izenean
eta hau ordezkatuta, 2012ko Aste Nagusian emango diren txosnetako bat eskuratzeko eskaera egiten du, zozketa hori eta txosnen erabilera arautzen dituzten oinarriak erabat onartuta.

- 6.- Esleipen hau prekarioan egiten da, oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera: Donostia Kulturak esleipena kenduko du elkarte emakidadunak bertan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituztenean.

Solicitudes y plazos para la realización del Sorteo

- 4.- Las solicitudes, junto con la documentación requerida, se presentarán en las oficinas de Donostia Kultura – Unidad de Fiestas (Plaza Constitución 1) estableciéndose como último día el **8 de junio a las 13:30 horas**.

El 15 de junio se expondrá, en el tablón de anuncios y página Web de Donostia Kultura, las listas previas de admitidas a sorteo. Las posibles reclamaciones se podrán presentar desde el mismo día de su exposición pública hasta el 22 de junio a las 13:30 horas.

Si se presentase alguna reclamación, la resolución relativa a la misma será publicada en el tablón de anuncios y página Web de Donostia Kultura **el 27 de junio**.

El **4 de julio** se realizarán los sorteos ante Fedatario/a público/a..

- 5.- La solicitud deberá ajustarse al modelo siguiente:
Don/Doña.....
con D.N.I..... y número de teléfono.....en nombre y representación de la asociación.....con domicilio social en Donostia-San Sebastián, C/..... solicita le sea adjudicada una de las txosnas que se sortearán con motivo de la Semana Grande 2012 Aste Nagusia, aceptando plenamente las bases que regulan el sorteo y la posterior utilización de las mismas.

- 6.- La adjudicación se realiza en precario, sujeta a las condiciones establecidas en las presentes bases: Donostia Kultura procederá a retirar la adjudicación cuando la asociación adjudicataria no cumpla todas y cada una de las exigencias de las mismas.

Zozketa

7.- Txosnen zozketa, ezarritako baldintzak betetzen dituzten elkarte, entitate edo kolektibo herrikoen artean egingo da. Baldintzak betetzen dituzten elkarte, entitate edo kolektiboen kopurua txosnen kopurua baino handiagoa bada, Notario aurrean zozketa bat egingo da **uztailaren 4ean, 13:00etan, Udaletxean (Ijentea 1)** oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten guztien artean. Halaber, esleitutako zerrendako elkarteren batek uko eginez gero, ordezkoren zerrenda bat osatuko da.

Sorteo

7.- Los sorteos se realizarán entre las asociaciones que cumplen los requisitos exigidos. En el caso de que estas superen el número establecido, se adjudicarán por sorteo ante Fedatario/a público/a, entre todas las que cumplan lo establecido en las presentes bases, **el día 4 de julio, a las 13.00 horas, en el Ayuntamiento (Ijentea 1)**. Se establecerá asimismo una lista de suplentes en cada categoría para el caso de que alguna de las Asociaciones de las listas iniciales no aceptase o no pudiese aceptar la concesión.

Prezioa

8.- Txosna erabiltzen duten entitateek **1.218,00 € + %18ko BEZa (Guztira: 1.437,24 €)** ordainduko dituzte **KANON gisa, uztailaren 20eko 13:30ak** baino lehen, Donostia Kulturaren izenean La Caixaren ondorengo kontu-zenbakian diru-sarrera eginez: 2100-2258-16-0200136619.

600,00 €ko **FIDANTZA** ezartzen da. Kopuru hori, **kanonetik apartekoa izango da** eta La Caixaren 2100-2258-16-0200136619 zenbakiko kontuan ordaindu beharko da Donostia Kulturaren alde **uztailaren 20eko 13:30 arte**; fidantza, elkarte emakidadunari itzuliko zaio, instalazioak behar bezala erabili dituztela eta bertan guztia egoera onean dagoela egiaztatu ondoren.

Era berean, **euro bat** ordainduko da eskatu eta emango den edalontzi bakoitzeko, **abuztuaren 1eko 13:30ak** baino lehen, Donostia Kulturaren izenean, La Caixaren ondorengo kontu-zenbakian diru-sarrera eginez: 2100-2258-16-0200136619. Hauek **berriro erabiltzeko edalontzien gordailu gisa** ordainduko da eta **250 €**, berriz, Aste Nagusia amaitutakoan antolatzaileei itzultako edalontzien desinfekzio-zerbitzurako.

Precio

8.- Las asociaciones objeto de la concesión ingresaran en la cuenta de La Caixa: 2100-2258-16-0200136619 a nombre de Donostia Kultura la cantidad de **1.218,00 €+IVA 18% (Total: 1.437,24 €** en concepto de **CANON** antes del **día 20 de julio a las 13:30 horas**.

Se establece una **FIANZA** de **600,00€** que deberá ser ingresada en la cuenta corriente La Caixa: 2100-2258-16-0200136619 a nombre de Donostia Kultura, **aparte del canon** antes del **día 20 de julio a las 13:30 horas**; la fianza será reintegrada a la asociación concesionaria, una vez comprobada la correcta utilización de las instalaciones y la inexistencia de desperfectos en las mismas.

Una vez se haya establecido el número de vasos a entregar a cada adjudicatario, se ingresará en la cuenta corriente La Caixa: 2100-2258-16-0200136619. a nombre de Donostia Kultura **antes del día 1 de agosto a las 13:30 horas**, la cantidad de 1 € por vaso en concepto de **depósito por la utilización de los vasos reutilizables** y **250 €** para servicio de desinfección de los vasos devueltos a la organización una vez finalizada la Aste Nagusia.

Baldintza teknikoak

- 9.- **Egiturak:** Zerbitzua muntatzeko egitura Donostia Kulturak emango du. Ez dira adierazitakoak ez diren muntaiak onartuko.

Instalazioak, bakar-bakarrik, taberna-kafetegirako erabiliko dira. Edozein motatako edariak saldu ahal izango dira. Aste Nagusia babesten duten produktuen markak erabili behar dira ezinbestean, Donostiako Aste Nagusiaren antolakuntzarako ematen duten laguntza hartu behar baita kontuan. Janariei dagokienean, Donostiako Udalaren Osasun Araudian xedatutakoa bete beharko da.

- 10.- **Edalontzi berrerabilgarriak:** 2012ko Aste Nagusian ezartzen dituzten txosna guztien esleipendunek, derrigorrez eta eskusiboki, antolatzaileek emango dizkieten berriz erabiltzeko edalontziak erabili beharko dituzte.

Postuen esleipendunek antolatzaileei behar dituzten edalontziak eskatu ditzakete, beti ere 375 (400 zk-koak) eta 234 (800 zk-koak) multzotan. Antolakuntzak dituen edalontzi kopurua aztertu ondoren, eskatzaile bakoitzari dagokion edalontzi kopurua banatuko dio, eta honek euro bat ordaindu beharko du jasoko duen edalontzi bakoitzeko. Edalontzi horiek edari guztietarako erabili beharko dira. Edalontzi bakoitzeko, Donostia Kulturari ordaindutako kopuru bera kobratuko dute, hau da, 1 €.

Esleipendunek, halaber, 250 € ordainduko dituzte itzulitako edalontziak desinfektatzeko.

Donostia Kulturak edalontziak eskuratzeko puntu bat jarriko du; esleipendunek, edalontzi gehiago behar dituztenean, bertara jo ahal izango dute eta unitate bakoitzeko euro bat

Requisitos técnicos

- 9.- **Estructuras:** La estructura para montaje del servicio será facilitada por Donostia Kultura. No se admitirán montajes diferentes a los señalados.

Las instalaciones se utilizarán de forma exclusiva como bar-cafetería. Se podrán expedir cualquier tipo de bebidas, siendo preceptiva la utilización de las marcas de producto patrocinadoras de la Semana Grande, habida cuenta sus aportaciones a la organización de la Aste Nagusia donostiarra. En cuanto a los alimentos, se estará a lo dispuesto en el R^o de Sanidad el Excmo. Ayto. de Donostia-San Sebastián.

- 10.- **Vasos reutilizables:** Las asociaciones adjudicatarias de todas y cada una de las txosnas que se instalen en la Semana Grande 2012 deberán utilizar, ineludiblemente y de forma exclusiva, los vasos reutilizables que en número suficiente les serán entregados por la organización.

Las adjudicatarios podrán solicitar a la organización los vasos que precisen en números múltiples de 375 (400 cc) y 234 (800 cc). La organización, comprobadas las existencias de vasos entregará a cada solicitante el número que le corresponda, debiendo éste abonar un euro por cada uno de los vasos a recibir. Estos deberán utilizarse para las diferentes bebidas, cobrándose por ellos la misma cantidad abonada a Donostia Kultura, esto es, 1€.

Los adjudicatarios abonarán asimismo 250 € para desinfección de los vasos devueltos.

Donostia Kultura instalará un punto de aprovisionamiento de vasos; los adjudicatarios podrán acudir al mismo cuando precisen nuevos vasos, en el horario que se establezca, retirándolos

ordainduta eskuratu ahal izango dituzte. Aste Nagusia amaituta, saldu ez dituzten edalontziak, aipatutako guneetan itzuliko dituzte, jatorrizko kaxetan, zenbatuta eta garbi, abuztuaren 19an, igandea, ezartzen den ordutegian.

Donostia Kulturak, itzulitako edalontziak zenbatuko ditu eta, itzuli dituen taldeari, zenbatutako kopuruari dagokion ordainagiria emango dio Garbi, lehor eta berrerabiltzea galarazten ez duen kalterik gabeko edalontzi-kopurua). Itzulitako edalontziei dagokien ordainketa, emakidadunak emandako kontu korrontean egingo dute.

Ezingo da beste mota bateko edalontzirik erabili.

previo pago de 1€ la unidad. Una vez finalizada la Semana Grande, los vasos que no se vendan serán devueltos en el citado punto, en sus cajas originarias, contados y limpios, el domingo 19 de agosto en el horario que se establezca.

Donostia Kultura recontará los vasos devueltos y entregará al colectivo correspondiente un recibo con la cantidad computada. (Número de vasos devueltos, limpios, secos y sin daños que impidan su reutilización) El abono de la cantidad correspondiente se realizará en la cuenta corriente facilitada por el concesionario.

No se podrá utilizar ningún otro tipo de vaso.

11.- **Hartune elektrikoa.** Donostia Kulturak 9.900 W-eko potentzia izango duen argindarreko hartune bana jarriko du txosna bakoitzean. Ezingo da, inola ere, potentzia hau baino gehiago erabili.

11.- **Toma eléctrica:** Donostia Kultura facilitará una toma de energía eléctrica 9.900 W de potencia por txosna. Esta potencia no podrá ser ampliada en ningún caso.

12.- **Higiene- eta osasun-neurriak:**

- a) Elkarte esleipendunak behar bezala erabiltzeaz eta bertako garbitasuna mantentzeaz arduratuko dira. Instalazioak ezingo dira aldatu. Debekatua dago eguzki-oihalak edo beste edozein motatako estalkiak jartzea.
- b) Materialak, kutxak, ontziak eta abar txosnen barruan edo horretarako ezarriko den eremuan gordeko dira.
- c) Bertan erabiliko den ontziteria erabili eta botatzekoa eta biodegradagarria izango da. Inolaz ere ezingo dira kristalezko ontziak erabili; edariak ezingo dira beirazko ontzitan saldu.
- d) Saldutako produktu guztiak Industria Baimenduenak izango dira.
- e) Prestatuta saltzeko elikagaiak manipulatu nahi badituzte

12.- **Medidas higiénicas y sanitarias:**

- a) Las asociaciones adjudicatarias serán responsables del buen uso y limpieza de las instalaciones. Las instalaciones no podrán modificarse, quedando prohibida, expresamente, la colocación de toldos o cualquier otro tipo de cubiertas.
- b) El almacenaje de materiales, cajas, envases,... se hará bien en el interior de las txosnas, bien en la zona que se establecerá a tal efecto.
- c) La vajilla a utilizar será de uso desechable y biodegradable. No se podrán utilizar, en ningún caso, recipientes de cristal; ningún tipo de bebida podrá venderse en recipiente de vidrio.
- d) Todos los productos que se expendan procederán de Industrias Autorizadas.
- e) Si se pretendiese manipular alimentos para su venta cocinados

(hamburgesak, sandwichak, eta abar), manipulatzeko arduratutako pertsonak **MANIPULATZAILE TXARTELA IZAN BEHARKO DUTE**. Elikagaiak manipulatzeko era garbian eta egokian jantzi beharko dute.

- f) Instalazioak garbi eta higiene-egoera egokian mantenduko dira. Hondakinak botatzeko, erraz garbitzen diren ontzi estankoak erabiliko dira
- g) Birzikla daitekeen materiala (kartoiak, beira, eta abar) bereizita jarriko, dira birziklatu ahal izateko.
- h) Tabakoaren produktuak saldu, hornitu, kontsumitu eta iragartzea erregulatu eta tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko abenduaren 26ko 28/2005 legearen 2. kapituluko 3. artikuluko 2. puntuan ezarritakoaren arabera debekatua dago tabakoa saltzea.
- i) 18 urtez azpikoei debekatua dago alkohola saltzea.
- j) Edariak zerbitzatu eta/edo txosnen barruan lanean diharduten guztiek 18 urte edo gehiago izan beharko dituzte. Agintari eskudunak, edozein unetan, txosnetako barren atzean dagoen edonori NANA eskatu ahal izango dio goian aipatutakoa betetzen ari ote diren egiaztatzeko.
- k) Dena den, **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2004ko apirilaren 29ko 852/2004 ERREGELAMENDUAK** elikagaietarako ezarritako higiene-neurriak bete beharko dira, beti. Donostiako osasun-ikuskaritza, edozein unetan, utzitako instalazioetan sartu ahal izango da, eta aurreko baldintzak betetzen ez badituzte instalazio horiek itxi ahal izango ditu.

(hamburguesas, sándwichs,...), las personas a cargo del manipulado **DEBERÁN ESTAR EN POSESIÓN DEL CARNET DE MANIPULADOR**. Deberán vestir de manera limpia y adecuada para la manipulación de alimentos.

- f) Se mantendrán en correctas condiciones de limpieza e higiene las instalaciones, utilizándose para el depósito de desperdicios recipientes estancos de fácil limpieza.
- g) El material susceptible de reciclaje (cartones, vidrio, etc...) será depositado selectivamente con el fin de que pueda ser reciclado.
- h) Se prohíbe terminantemente la venta de tabaco según lo establecido en el capítulo 2, artículo 3, punto 2 de la ley 28/2005, de 26 de diciembre, de medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco.
- i) Queda terminantemente prohibida la venta de alcohol a menores de 18 años.
- j) Todos aquellos que participen en las labores de servicio de bebidas y/o dentro de la txosna deberán ser mayores de 18 años. La autoridad competente podrá en cualquier momento solicitar la exhibición del DNI a quienes se encuentren tras la barra de cualquiera de las txosnas para comprobación de lo anteriormente establecido.
- k) En todo caso se estará al cumplimiento de las medidas de higiene de los productos alimenticios establecidas por el **REGLAMENTO 852/2004, de 29 de Abril de 2004, DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO**. La inspección Sanitaria del Excmo. Ayto. de Donostia podrá acceder en cualquier momento a las instalaciones cedidas, pudiendo precintarlas caso que no se cumplan todos los extremos anteriores.

Ordutegiak eta soinu- eta merkataritza-Baldintzak

13.- **Megafonia:** Donostia Kulturak programatutako ekitaldietan zehar taldeek ezingo dute euren megafonia erabili. Dena den, Donostia Kulturak jarduerak programatu ez dituen bitartean txosna guztietarako megafonia bakarra izango da, eta ondorengoak izango dira gehienezko soinu-mailak:

- ✓ 95 dezibelio, 24:00ak arte
- ✓ 70 dezibelio, 24:00etatik aurrera

Musika-ekipoak ezingo dira, inola ere, 11:30ak baino lehen erabili.

Megafonia bidez emandako mezuak euskaraz edo euskaraz (1.) eta gaztelaniaz (2.) eman beharko dira, hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabilita.

14.- **Ireki eta ixteko ordutegia:** Txosnak, 17:00etan ireki eta programatutako kontzertua amaitu eta ordu betera itxiko dira.

Jaiegunetan (igandean eta abuztuaren 15ean) 11:30etatik ireki ahal izango dira.

15.- **Prezioak:** Publikoarentzako salmenta-prezioak kartel elebidunean jarriko dira ikusgai. Kartelak euskara hutsean edo euskaraz (1.) eta gaztelaniaz (2.) idatzi ahal izango dira.

Segurtasun-baldintzak:

16.- **Su-itzaltzea:** Txosna guztiek 21^a-113B eraginkortasuneko su-itzalgailu bat, gutxienez, izan behar dute. Su-itzalgailu guztiek azken sei hilabetetan azterketa pasatuta izan behar dute, eta erraz hartzeko moduko tokian egongo da.

Condiciones horarias, sonoras y comerciales

13.- **Megafonía:** No podrá utilizarse megafonía propia durante el desarrollo de los actos programados por Donostia Kultura. En todo caso, la megafonía deberá ser común a todas las txosnas en los momentos en que no haya programada ninguna actividad por Donostia Kultura, estableciéndose como niveles máximos de emisión acústica los siguientes:

- ✓ 95 decibelios hasta las 24.00 horas
- ✓ 70 decibelios a partir de las 24.00 horas

No podrán utilizarse los equipos de sonido en ningún caso antes de las 11.30 horas.

Los mensajes emitidos por megafonía deberán realizarse en euskara o en euskara (1^o) y castellano (2^o), utilizando lenguaje inclusivo, no sexista.

14.- **Horario de apertura y cierre:** El horario de apertura se extenderá desde las 17.00 horas hasta 1 hora después de la finalización de los conciertos programados.

Los días festivos (domingo y día 15 de Agosto) podrá abrirse a partir de las 11.30 horas.

15.- **Precios:** Los precios de venta al público se expondrán en cartel visible al público. Los carteles podrán ser redactados sólo en euskara o en euskara (1^o) y castellano (2^o).

Condiciones de seguridad:

16.- **Extinción de incendios:** Todas las txosnas deberán contar con, al menos, un extintor de eficacia 21^a-113B, con fecha de revisión reciente y siempre inferior a seis meses, colocado en lugar de fácil acceso.

- 17.- **Erantzukizun Zibileko Asegurua:** Zerbitzua emateko, derrigorrez, Erantzukizun Zibileko poliza (**150.253,02 €ko gutxieneko estaldura**) aurkeztu beharko da, jardueran zehar eman daitezkeen kalteak ordaintzeko. Bertan sartuko lirateke, Donostia Kulturak utzitako instalazioetan eman daitezkeen kalteak, txosna bakoitzak saltzen dituen produktuak hartzeagatik sor daitezkeen kalteak, edo jardueran bertan eta/esleipendunek (hau da, jardueran esku hartzen duten guztiek) eraginda eman daitezkeen kalteak.

Poliza horren eta prima ordaindu izanaren agiriaren kopia bana Donostia Kulturaren Festak Unitateko bulegoetan (Konstituzio plaza, 3) entregatu beharko dira **uztailaren 22ko 13:30ak baino lehen**. Kopia jakorritzarekin batera aurkeztu behar dira, unitateko langileek aztertu ondoren zigilua jartzeko.

Publizitatea

- 18.- Antolatzaileek emakidadunei, jaietan kontsumoarekin eta jarrira ez sexisten lotutako hainbat gairi buruzko ("arduraz kontsumitu", "ez da tabakoa saltzen", "18 urtetik beherakoei ez zaie alkohola salduko") kartelak banatuko dizkiete, txosnan ondo ikusteko toki egoki batean jartzeko.

Jaietan zehar txosnak kudeatzen dituzten elkarteek, pertsona arduradunen bat Udalak antolatutako ondorengo prestakuntzara joateko konpromisoa hartuko dute: "jai-barrutian indarkeria matxistaren edota sexu-erasoen aurrean nola jokatu".

Araudi aplikagarria

- 19.- Ondorengo arauen edukiak bete beharko dira:
4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa,

- 17.- **Seguro de Responsabilidad Civil:** Será preceptiva para la concesión del servicio la presentación de una póliza de Responsabilidad Civil (**cobertura mínima 150.253,02€**) para la cobertura de los daños que puedan ocasionarse en el desarrollo de la actividad, observándose tanto los daños que pudieran producirse en las instalaciones cedidas por Donostia Kultura como los derivados de la ingestión de los productos que en cada txosna se expendan u otros provocados por la realización de la actividad y/o por sus adjudicatarios (esto es, por todos aquellos que intervengan en la actividad).

Una copia de la citada póliza y del recibo de pago de la prima deberán ser entregadas en las oficinas del Donostia Kultura-Unidad de Fiestas (Plaza constitución 1) **antes del 22 de julio a las 13:30 horas**. Las copias se aportarán junto con sus originales para su examen y sellado por personal de la unidad.

Publicidad

- 18.- Se proveerá a cada txosna de publicidad preventiva sobre consumo y venta de alcohol y tabaco a menores y una pegatina sobre prevención de conductas sexistas y agresiones sexuales. Esta publicidad se colocará en un lugar visible de la txosna.

Las asociaciones que gestionen las txosnas durante las fiestas se comprometen a que alguna persona responsable acuda a la formación sobre "actuación ante casos de violencia machista y/o agresiones sexuales en el recinto festivo", organizada por el Ayuntamiento.

Normativa de aplicación

- 19.- Deberán respetarse los contenidos de las siguientes normas:
Ley 4/1995 de 10 de Noviembre, de

jendurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituena.

18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa. Halaber, Donostiako drogazaletasunaren prebentzioari buruzko tokiko plana errespetatu beharko da (I. ERANSKINA)

Eta oinarri hauek aipatzen dituzten gai eta jarduera guztiei aplikatu ahal zaizkien guztiak.

espectáculos públicos y actividades recreativas

Ley 18/1998, de 25 de Junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias. Así como el plan local de prevención de drogodependencias de Donostia-San Sebastián (ANEXO I).

Y de todas aquellas de aplicación en virtud de la materia y de la actividad a la que hacen referencia las presentes bases.

Arau-haustek

20.- Atal honetan adierazitako edozein baldintza betetzen ez bada, emakida berehala kendu, fidantza gauzatu eta txosna itxi egingo dute, eta Donostia Kulturak, dagozkion ekintza judizialak aurrera eramateko eskubidea izango du.

Incumplimientos

20.- El incumplimiento de cualquiera de las condiciones expresadas en estas bases dará lugar a la retirada inmediata de la concesión, la ejecución de la fianza y a la clausura de la txosna en cuestión, reservándose Donostia Kultura al derecho a ejercitar las acciones judiciales oportunas.

Donostia, 2012ko maiatza

Donostia – San Sebastián, mayo 2012

I. ERANSKINA

ANEXO I

18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, drogamenpekotasunen arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa.

4. artikulua. Prebentzio komunitarioa.

1. Udalek, Drogazaletasunari buruzko Tokiko Plan bat landuko dute, lege honen 36.4. artikuluan xedatutakoaren eta arauetan ezarritako terminoen arabera.

EDARI ALKOHOLDUNEN ETA TABAKOAREN HORNIDURA ETA SALMENTAREN MUGAK

20. artikulua. Edari alkoholunak.

1. **Debekatua dago edari alkoholunak honako pertsona hauei saldu edo ematea: 18 urtetik beherakoei.**

LEY 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias.

Artículo 4. Prevención comunitaria.

1. Los Ayuntamientos elaborarán un Plan Local de Drogodependencias conforme a lo dispuesto en el artículo 36.4 de la presente ley, y en los términos que se establezcan reglamentariamente.

LIMITACIONES DEL SUMINISTRO Y VENTA DE BEBIDAS ALCOHÓLICAS Y DE TABACO

Artículo 20. Bebidas alcohólicas.

1. **No se permitirá la venta ni el suministro de bebidas alcohólicas a** las siguientes personas:

A menores de 18 años.

2. 22. artikuluko¹ 1. paragrafoan aipatzen diren profesionaleri, zerbitzua eskaintzen ari diren bitartean.
2. A los y las profesionales a que se alude en el párrafo 1 del artículo 22.1 mientras se encuentren prestando servicios.

21. artikulua. Tabakoa.

1. Debekatua dago tabakoa, bertako produktuak, lanak edo hauek erabiltzera bultzatzen duten imitazioak saldu edo ematea 18 urtetik beherakoei.

Artículo 21. Tabaco.

1. Se prohíbe vender o suministrar tabaco, sus productos, labores o imitaciones, que puedan suponer una incitación al uso de los mismos, a personas menores de 18 años.

V. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

CAPÍTULO V. DE LAS INFRACCIONES Y SANCIONES

46. artikulua. Arau-haustek.

Artículo 46. Infracciones.

1. Lege honetan erregulatutako gaien esparruan **arau-hauste administratiboak** dira, bertan tipifikatutako ekintza edo huts-egite burutuak, ekintza edo huts-egite horien ondorio izan zitezkeen erantzukizun zibil, penal edo beste mota batekoak kaltetu gabe.
1. Son **infracciones administrativas** en el ámbito de las materias reguladas en la presente Ley las acciones y omisiones consumadas tipificadas en la misma, sin perjuicio de las responsabilidades civiles, penales o de otro orden jurídico que pudiesen ser consecuencia de las citadas acciones u omisiones.

2. Arau-hauste gisa tipifikatzen dira: 20, 21 eta 25. artikuluetan ezarritako edari alkoholunen, tabakoaren eta zehaztutako bestelako substantzien hornidura eta salmentaren inguruko mugak ez betetzea.

2. Se tipifican como infracciones: El incumplimiento de las limitaciones al suministro y venta de bebidas alcohólicas, tabaco y otras sustancias establecidas en los artículos 20, 21 y 25.

47. artikulua. Arau-hauste motak.

Artículo 47. Clases de infracciones.

3. Arau-hauste larritzat jotzen dira: 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 eta 3, 20, 21 eta 22. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, jokabide horiek osasunerako arriskutsuak edo kaltegarriak direnean.
4. Arau-hauste oso larritzat jotzen dira: 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 eta 3, 20, 21 eta 22. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, jokabide horiek osasunerako oso arriskutsuak edo kaltegarriak direnean.

3. Se consideran infracciones graves: El incumplimiento de lo establecido en los artículos 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 y 3, 20, 21 y 22. cuando tales conductas causen riesgo o perjuicio graves para la salud.
4. Se consideran infracciones muy graves: El incumplimiento de lo establecido en los artículos 13, 15, 16.1, 17, 18.1, 2 y 3, 20, 21 y 22. cuando causen riesgo o perjuicio muy graves para la salud.

28/2005 Legea, abenduaren 26koa, tabakismoaren kontrako osasun-neurriak ematekoa eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzekoa.

Ley 28/2005, de 26 de diciembre, de medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco.

TABAKOAREN PRODUKTUEN SALMENTA, HORNIDURA ETA KONTSUMOAREN LIMITACIONES A LA VENTA, SUMINISTRO Y CONSUMO DE LOS PRODUCTOS DEL

MUGAK.

3. artikulua. Tabakoaren produktuen salmenta eta hornidura.

1. Tabakoaren produktuen txikizkako salmenta eta hornidura **bakarrik** egin ahal izango **tabako- eta tinbre-denden sarean, edo dagozkion administrazio-baimenak dituzten establezimenduetan ezarritako salmentakin bitartez**, eta erabat debekatua dago beste edozein tokitan edo modutan saltzea.

¹ Orokorrean, edari alkoholdunen eraginpean eginez, norberaren edo hirugarren pertsonen segurtasuna arriskuan jarri edo kalteak eragin ditzaketan guztiak.

TABACO.

Artículo 3. Venta y suministro de los productos del tabaco.

1. La venta y suministro al por menor de productos del tabaco **sólo** podrá realizarse **en la red de expendedurías de tabaco y timbre o a través de máquinas expendedoras, ubicadas en establecimientos que cuenten con las autorizaciones administrativas oportunas**, para la venta mediante máquinas, y queda expresamente prohibido en cualquier otro lugar o medio.

¹ En general, todas aquellas cuya actividad, de realizarse bajo influencia de bebidas alcohólicas, pudiera poner en riesgo o causar un daño contra la vida o la integridad física de sí mismas o de terceras personas.